



Parte hartze handia inauterietan

Andoaingo eta Urnietako inauterietan jendetza atera zen kalera, bereziki larunbatean. Errotuta dago ospakizuna, eta parte hartzean goruntz doa / 2-11

Martxoaren 8ko ekitaldi-sorta iragarri dute

Andoaingo egitarauko lehen hitzorduak iristear dira: Martxoaren 6an argazki-erakusketa, martxoaren 7an kalejira eta martxoaren 8an manifestazioa / 12



Andoaingo Guduaren edizio berria iragarri dute, irailerako. Talde eragilea abiatzeaz da / 16



Abiatzeaz da Euskal Karabana Sahara aldera, Andoaindik bildutako 7.200 kilo elikagaiekin / 13



Hurria-Sahara elkarteak antolatuta, Bertso saioa igande honetan. Basteron, 12:00tan hasita / 15

Urnietako Baratze Parkeko partzeletako bat eskuratu nahi duzu?



Izena eman martxoaren 10 arte
Bertanen, herritarren arretarako bulegoan





Deabruak bereganatutako pailazoak Txitibar plazako iturrian, desfileari ekin aurretik. AIURRI



Addams familiako kidea. AIURRI

Ehunka argazki webgunean

Larunbatekoa egin handia izan zen Andoainen. Urtez urte karroza eta konpartsa gehiago dabil herrian, eta baita espaloietan ikusle modura hurbiltzen den inauterizalea ere.

Larunbateko desfileko 300 argazkitik gora ikusgai daude www.aiurri.eus sarean, eta baita bideoak ere.

Ehunka lagun desfilean

Hogeitik gora konpartsa elkartu ziren Etxeberrietan, larunbat arratsaldeko desfileari ekiteko. Bostehunetik gora herrikidek talde ezberdinetan parte hartu zuten, eta beste hainbeste izango ziren taldeka eta beren kasa mozorroa jantzi eta kalera irten zirenak

Erredakzioa ANDOAIN

22 karroza osatzen zituzten parte-hartzaileek gogo biziz agertu ziren inauteriekin gozatzeko, eta ingurukoak gozarazteko. Denek ere aldeztu aurretik koreografia edo "show"-a prestatuta ekarri zuten, batzuk besteek baino landuago dena esatera.

Desfilea osatu zuten dantza akademiek, ikastetxeek, lagun kuadrillek... urte askotako eskarmentua pilatu dute, eta hori ikuskizunaren ikusgarritasunaren mesederako izan da aurtengoan ere.

Hainbat gai biziberritu eta parodiatu zituzten konpartsek,

zein baino zein irudimentsuagoak eta barregarriagoak: Ondarreta ikastetxearen 50. urteurrena, Ertzaintza eta Artzaintzako lanbideak, pertsonai mitologikoak, SWAT izeneko eliteko militar taldea, mendebaldeko bakeroak, Titanic-a, auto-txokeak, superheroiak...



Erromatar kutsuko mozorroak Goikoplazarako bidean. AIURRI



Klaap dantza akademiak dozenaka haur eta gaztetxo Aladinoz mozorrotu zituen. AIURRI



Ertzaintza ez baizik Artzaintza sustatzeko kanpainak arrakasta handia izan zuen. AIURRI



Konpartsa honetako kideek lan handia hartu zuten auto-brokeak prestatzen. AIURRI



Zumbalokura taldeak konpartsa jendetsua osatu zuen. Koreografia landuak eskaini zituzten. AIURRI



Pertsonaia mitologikoez tartea izan zuten Andoaingo inauterian. AIURRI



Ondarreta ikastetxeak 50. urteurrena gogora ekarri nahi izan zuen. AIURRI



andoaINDARRA
euskaraz



Frantziako Iraultza gogora ekartzen zuen taldeak, irudimena landuz, ikusleen barreak eragin zituen. AIURRI



Mozorro espazialak ikusteko aukera izan zen Andoaingo inauterietan. AIURRI

Festa nagusi larunbatean

Desfilearekin batera, bakarka edo koadrilan mozorrotuta parte hartzen duten herrikideak asko dira. Iluntze aldera Goikoplazan kolore eta soinu festa nagusitzen da. Urtean jende gehien elkartzen duen hitzorduetakoa da, inauteriarena

Erredakzioa ANDOAIN

Etxeberrietan hasi eta Goikopla-za bitarte, karroen desfilean nahastuta zein espaloietan, ehunka mozorro bistaratu ahal izan ziren, jaiari kolorea eta grazia erantsiz. 41 urte bete dituen Andoaingo Inauteriek asko irabazi dute, ikusgarritasunaren zein

parte hartzearen ikuspegitik. Larunbat arratsaldeko inauteria jaia da horren adierazgarriarik esanguratsuena. Desfilea ez da ikuskizunaren emailen (konpartsak) eta ikuskizunaren hartzaileen (espaloietako publikoa) arteko ekitaldi batera mugatzen. Mozorrotzearen fenomenoak za-

baltzen eta herrikoitzen joan da Andoainen, eta dagoeneko makina bat herritarrentzat ohikoa bihurtu da etxean honetaz edo hartaz jantzi, kalera irten eta festaren parte modurik aktiboenean izateko gogoia, norbanako lotsak eta egunerokotasuneko buruhusteak uxatu eta gero.



Igarle lanetan bi inauterizale, eta atzean beste bi lagun. AIURRI



Aurten ikusi diren mozorroen artean, honakoa izan da ikusgarrienetakoa. AIURRI



Ilunpetan ikusgarria zen marmoka taldea. AIURRI



Afrikar tribua desfilearen amaiera aldera, Udaletxetik gertu. AIURRI



Beldurra sortzeko mozorroa inauterietako bereizgarrietako bat da. AIURRI



AEBko muturreko katoliko laukatea Goikoplazan. AIURRI



Larunbat goizean Erraldoi eta Buruhandien konpartsa Goikoplazan elkartu zen. Lehen saiotxo bertan egin ondoren, Bastero plazara hurbildu ziren. Bertatik hasi zen Zumea plazaraino egin zuten kalejira. AIURRI

Espaloian topatutako artistak

Kalean dabilen jendetzaren artean, mozorro bikainak topatzeko aukera paregabea dago. Aktualitateari edota pertsonaia ezagunei buruzko mozorro batzuk bikainak dira. Askotan, gainera, elementu gutxierekin eta irudimen askorekin osatutako mozorroak izaten dira. Webgunean gehiago ikus daitezke.



Padilla toreroaren mozorroa. AIURRI



Gozatu ederra hartu zuen Mikel Estanga gazteak. AIURRI



Etxeberria, klasikoa inauterietan. AIURRI



Villarejo komisarioa. AIURRI



Denboralea irudikatzen duen mozorro aparta egin zuen Leire Apalategik. Bikaina. AIURRI



Ondarreta ikastetxeko ikasleak Ostegun Gizenean. AIURRI

Maskara lehiaketako irabazleak

- 2006-2008:
 1. Leire Nuñez; 2. Unai Peñalvo;
 3. Alan Sanchez.
- 2009-2010:
 1. David Oliva; 2. Noa Prado;
 3. Maddi Miguel.
- 2011-2012:
 1. Luis Fernando Orellanes;
 2. Irati Nuñez; 3. Alaine Anton.



Irabazleak epaimahaikideekin eta Udal arduradunekin. AIURRI

Ostegun Gizenean hasi zen jaia



Aita Larramendi ikastolako ikasleak Ostegun Gizenean. AIURRI



La Salle Berrozpe ikastetxeko rockzaleak Ostegun Gizenean. AIURRI



Txilabadun musikari eta kantari taldea ibili zen, kalez kale, Ostegun Gizenean. AIURRI

BERRIA NUEVO

abiatu 2.0

abiatu

abiatu 2.0 BERRIAK

ESKAITZEN DIZUN GUZTIA!

BIDEGIk teleordainketa-gailuaren berria den bertsio hobetu bat atera du gipuzkoar guztientzat.

Prestazio berriak, erabilera-eremu handiagoa, deskontu-sistema bera...

Abiatu gailuaren erabiltzailea izan ala ez, dagoeneko abiatu.bidegi.eus-en eska dezakezu gailu berria.

Eskatu!

Informazio gehiago: info@bidegi.eus | 943 105 106 | GI-20 - KP / PK 14,800 - Aritzeta-Usurbil



Mozorroak eta apaingarriak egiteko trebezia handia erakutsi zuten, baita argazkia ateratzeko garaian ere. AIURRI



Argazkiak ikusgai daude. AIURRI

Argazkiak aiurri.eus webgunean

Larunbatean bertan ikusgai ziren hainbat irudi. Guztiak ikusgai daude Aiurri.eus gunean.

Zirko mundiala Urnietan

Parte hartze handia eta mozorro ederrak azpimarratu behar dira, eguraldi eguzkitsuarekin batera. Elementu horiek guztiak batera, Urnietako zirkoa mundiala izan zela esan daiteke inolako zalantzarik gabe. Jaiaz gozatzeko aukera izan zen





Munduko zirko ezberdinek bat egin zuten Idiazabal kalean, joan zen larunbatean. AIURRI



Argazkikoek bere rola serio demonio bete zuten. AIURRI



Umore ona ezinbesteko osagaia da inauterietan. AIURRI





Kantu liburuxka

2020





Gazte koadrila ezberdinek bat egin zuten Udal pilotalekuan. Herrigunean elektrotxarangak lagunduta ibili ziren. AIURRI




Koadrila ezberdinek bat egin zuten Udal pilotalekuan. AIURRI



Paella eta sagardoaren menua osatzeko eskura zeuden palomitak. AIURRI

Gazte bazkaria pilotalekuan

Egun osoko ospakizuna da Urnietakoa, eta urteak dira Poxta Zahar gazte elkarteak bazkaltzen antolatzen dabilela. Bertan egindako paella eta kupeleko sagardoa izan ziren bazkariaren osagai nagusiak. Gatza eta piperra, umorearekin ordezkatu zuten



Bertan egin zuten paella. AIURRI

Paella jatea

Arratsaldeko ordubiak pasatxo zirenean koadrilak pilotalekura hurbiltzen hasi ziren. Paella goxoa zain zuten.



Argazkiak eta bideoak ikusgai daude www.aiurri.eus webgunean. AIURRI



Lagun talde osoa elkartu gabe zegoen argazkia ateratzeko orduan. AIURRI



Larunbat eguerdian inauterizaleak San Juan plazan eta pilotalekuan elkartu ziren. AIURRI



IRITZIA

ESTI MUJIK A EHBILDUKO KULTURA ARLOKO ARDURADUNA

Andoain eta musika irakaskuntza

Askotan aipatu izan dugu Andoainek musikarekin izan duen lotura handia dela. Estilo ezberdinetako musikaz gozatzeko aukera izaten dugu eta entzun eta ikusten ditugun instrumentuen aniztasuna handia da. Hauek ikasteko aukeren inguruan, eztabaida piztu izan da askotan, azkena Xabier Lasak lehengo astean Aiurri (639. zenbakia; 2019ko otsailaren 21a) argitaratutako iritzia. Ez nuke nahi hau soilik berari erantzuteko egiten dela ulertzea. Egia da, baieztape oker batzuk egiten dituela, baina eskerrak eman nahi dizkiot gaia publiko egiteagatik, hausnarketarako aukera irekitzen duelako.

Instrumentu batzuk Andoaingo Udal musika eskolan ikasteko aukera izan da, beste batzuk hasieratik musika eskolatik kanpo erakutsi izan dira eta beste hainbat oraindik ere ez da aukerarik Andoaingen ikasteko.

Musika eskolatik kanpo erakusten diren instrumentuak, euskal instrumentuak izan dira eta hori ez da kasualitatea izan. Euskal instrumentuek, bakoitzak bere ibilbide propioa izan dute eta nahiz eta gaur egun seguruenik beste modu batera antolatuko litzatekeen, bere egunean instrumentu hauei beren espazio propioa eskaintzea erabaki zen. Basteron, Udal musika eskola kokatu zen eta euskal instrumentuen eskola Olagainen izatea pentsatu zuten. Txistua, dultzaina eta ondoren txalaparta ikasteko aukera izan dira bertan.

Instrumentu hauen ibilbideak oso ezberdinak izaten ari dira baina guztiekin egin izan da bultzatzearen ahalegina eta guztiak dira baliabide publikoak lagunduak. Batetik, egoitza bera, udalarena

izateaz gain bere gain hartzen ditu mantenu gastu guztiak eta bestetik, instrumentu horien klaseek sortzen dituzten galera ekonomikoak ere Udalak bere gain hartzen ditu. Andoaingen ikasi ezin daitezkeen instrumentuekin ere, Udalak diru-laguntzak ematen ditu.

Garai batean euskal instrumentuak soilik kalejira eta dianetara lotzen genituen baina hori duela urte asko izan zen. Musikak izan duen bilakaera handia izan da eta pentsaezina zen gaur egun taula gainean ikusten ditugun hainbat instrumentu elkarrekin jotzen ikustea edo musika instrumentu ezberdinekin entzuten ditugun erreperitorioak entzutea.

Zalantzarik ez dago Andoainek musikarekiko duen lotura eta zaletasunean norbanako, elkarte eta Udalak izandako konpromisoek lagundu dutela, bakoitzak beretik.

Nork esango luke Olagainen txistulari bandaren 40. urteurreneko kontzertuan entzun ahal izan genituen kantuak txistuarekin entzungo genituenik? Esate baterako, "Sagarra jo" kantua oso ezaguna egin zen Kalakan eta Madonnaren ahotik entzunda baina Andoaingo Basteron txistulariek eta hainbat musikaririk jo zuten Alberto Agirre abesbatzak abestuta. Eta berdina gertatzen da beste hainbat eta hainbat euskal instrumentuekin.

Instrumentu eta erreperitorio hauen nahasketak Andoaingo Udal musika eskolan eta eskolatik kanpo eskaintzen diren emanaldietan ematen ari dira baina bidea egiten jarraituko dugu instrumentu hauen bateratzea Udal musika eskolaren barruan ere eman dadin.



UNANUE

Martxoak 8 Andoaingen

Hitzaldiak, kalejira, kultur jarduerak... ia hilabete osora luzatuko dira jarduerak. Lehen hiru ekitaldiek andoaingar askoren arreta bereganatuko dute:

Martxoak 6, ostirala. 19:00, Bastero: "Herria herri bilakatu zuten Andoaingo emakumeak III", erakusketaren irekiera. Itxaso Mendiluzeren eskutik.

Martxoak 7, larunbata. 12:00, Bastero plaza: Pausoz pauso ekimena, martxa-kalejira eta ekitaldia. Basterotik hasi eta Goikoplazaraino.

Martxoak 8, igandea. 12:00, Goikoplaza: Manifestazioa egingo dute, Goikoplazatik hasita, Andoaingo Asanblada Feministak antolatuta.

Andoaingo EAJ-PNVren salaketa

Ohar bidez, azken egunetan agertu diren pintadak salatu ditu: "Benetan nekagarria eta tamalgarria da. Ekintza mota hauek, hamarkadetan jasan behar izan dugun, eta oraindik pairatzen ditugun, estrategia baten ondorioak dira. Desagertu behar duen estrategia baten aztarnak".



Batzokian agertu diren pintadak. AIURRI



BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeiz etxeko harpidetza-sistema.
Andoaingen urte osoko harpidetza-saria 39 eurokoa da.
Urnietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trubuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus
Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi eta Rocio Arias (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA: **ERROITZ** BATZU MUGATZA

ALJATUAK: **INSTROR**

TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA

Urnietako Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Hikuntza Berlitasunerako Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA: **Bikain**

BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

Larunbatean abiatuko da Euskal Karabana

Karabanan doazen elikagai guztien artean daude Andoainen bildutako 7.200 kiloak, baita botikez osaturiko 24 kaxa eta kirol materiala ere. Ia 200 oinetako bildu dituzte, Sahara aldera bidaltzeko. Andoaindarrek eskuzabaltasun handia erakusten dute, urtero

Erredakzioa ANDOAIN

Larunbat honetan Donostiatik abiatuko da Sahararen aldeko Euskal Karabana. Hamaseigarren edizioa da, honezkero. Hurria-Saharak herrikideen elkartasuna nabarmendu nahi izan du, prentsara igorritako ohar bidez: "Aurten ere Andoainen 7.200 kilo elikagai jaso dira herritarrek zuzenean erosita, eta beste diru ekarpenekin herriko merkatalguneetan erositakoen artean. Gure herritik ere 24 botika kaxa osatu dira, eta baita kirol materiala. Ia 200 oinetako pare bidali dira". Datuak ikusita, andoaindarren eskuzabaltasuna agerikoa da.



Informazio panelak. HURRIA-SAHARA

Ekitaldiak datozen egunetan

Aste honetan Sahararekin sentibilizatzeko hitzordu ezberdinak antolatu dituzte. Hauexek hitzorduak:

- **Otsailak 27, osteguna:** Saharako haurren egoerari buruzko "Oporrak Bakean" erakusketa Basteron.
- **Otsailak 28, ostirala:** Andoainera Saharako haur bat ekartzeko asmoa duen familiei zuzendutako bilera. 18:30ean hasiko da, Basteron.
- **Martxoak 1, igandea:** Urteroko bertso saioa Basteron. Sarrerak salgai daude Delgado, Ernaitza, Stop eta Urratsen. Informazio gehiago, Agenda atalean.



Garazi Urkola eta Mikel Arregi euskara zinegotzia. AIURRI

Gida-baimena euskaraz prestatzeko joera gorunzkoa da

Buruntzaldean gero eta herritar gehiago dira gida-baimena euskara ateratzen ari direnak

Erredakzioa ANDOAIN

124 herritarrek gainditu zuten atal teorikoa euskaraz, eta horien guztien artean 400 euroko diru saria zozketatu zuten. Aurten-goan hauexek izan dira sarituak. Andoainen Eider Sagarzazu Olaskoaga (Mendi autoeskola)

eta Garazi Urkola Arsuaga (Mendi autoeskola). Urnietan Ane Loitegi Ugalde (Hernani autoeskola).

2019an zehar Buruntzaldeko 124 herritarrek eskuratu zuten gida-baimena euskaraz, 2018an baino 14 lagun gehiagok.



Andoaingo Bastero Kulturgunean Martxoaren 1ean 12:00etan

Sarrerak salgai:
Delgado, Ernaitza, Stop eta Urrats
6.00€

Agin Laburu Oihana Iguaran Nerea Ibarzabal Gai jartzailea: Unai Ormaetxea

Unai Muñoa Aitor Mendiluze Nerea Elustondo

Antolatzaileak

Hurria Sahara

S.E.A.D.-en lagunen elkarte

PUNTUKA BERTSO ESKOLA

Loguntzaileak

AXA

AIURRI

urkiala

ANDOAINGO UDALA



Euskalduna goruntz doa

FUTBOLA Inauteriak izanda ere, Euskaldunako Ohorezko Jubenil mailako taldeak Santo Tomasen aurka jokatu zuen, eta gol bakarraz lortu zuen garaipena (1-0). Taldea bigarren doa lehenengoarekin berdinduta, 45 punturekin. Zortzi partida gelditzen dira denboraldia bukatzeko; maila berdinean jarraitzen badute Euskal Ligara igotzeko aukera eduki dezakete.



EUSKALDUNA



ARGAZKIJABEAXXXXXX

Podiumean berriro

FUTBOLA Arene Etxarrik Espainiako Txapelketan parte hartu zuen Madrilén, Euskal Selektzioarekin. Andoaingo Txirrindulari Eskolako kideak pistako "Madison" proban brontzezko domina lortu zuen, binakako proban. Adunarra denboraldi bikaina burutzen ari da, podiumera maiz igoz.



MUNDODEPORTIVO

Behetik gorunzko ibilbidea

PILOTA Julen Loitegik trinketea mailaz igotzea lortu du Iparraldeko txapelketan, pasa den astean 19-40 irabazi ostean. Lau garaipen jarraian lortuta bigarren mailako talde fasera jauzi egin du. Hurrena, maila handiagoko pilotarien aurka joakatu du, eta taldean lehenengo gelditzea izango du xede.



GR-121 ibilbidea. MENDIAK

Gipuzkoari bira, Zanpatuzen eskutik

MENDIZALETASUNA

Donostia-Zarautz ibilbidea egiteko asmoa dute, martxoaren 7an

Erredakzioa URNIETA

Eskiatzeko irteera bertan behe-
ra geratu zen arren, Zanpatuz
taldeak ekimen betean darrai.
Egitasmo berria aurkeztu dute,
egunotan: Gipuzkoari bira mugaz-
muga egitea. Hogei etapa ezberdin-
etan egiteko 300 kilometro inguru
dituen ibilbidea da, eta elkartekak
bizpahiru urtetan egin nahiko luke.
Martxoaren 7an Donostiatik abiatu-
ko dira, Zarautz aldera dauden 22
kilometroak egitera. 6 orduko ibil-
bidea da, zailtasun ertainekoa. Jan-
aria eta edaria bakoitzak berea era-
man behar du. Goizeko 07:30ean irt-
engo dira Matxo tabernaren pareko
bus geltokitik, eta iluntzeko 18:00ak
aldera itzuliko dira. Interesa duenak
izena eman behar du, martxoaren 3a
baino lehen, Kantoi tabernan edota
2KN kafetegian. Deialdia irekia dela
gogorarazi du Zanpatuz elkartekak:
"Animatu eta zatoz egun eder bat pasatzera!"

IRTEERA MARTXOAREN 7AN DA, ETA IZENA EMATEKO EPEA MARTXOAREN 3AN AMAITUKO DA

KARTELDEGIA

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA		
Anaitasuna-Euskalduna	3-1	

SAILKAPENA

1	Eibar Urko	49 puntu
18	Euskalduna	17 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

16:00 Euskalduna- Beti Gazte / Lar, 29

NESKAK, O. ERREGIONALA

Goierri-Urnieta	0-1
-----------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDA

11:30 Urnieta- Zumaiko / Ig, 1

ERREGIONAL PREFERENTE

Deusto Donostia-Urnieta	5-0
-------------------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDA

18:00 Urnieta- Kostkas / Lr, 29

PREFERENTE NESKAK, IGO. FAS

Euskalduna-Oiartzun	4-1
---------------------	-----

JUBENIL MAILA, OHOREZKOA

Santo Tomas Lizeoa-Euskalduna	0-1
-------------------------------	-----

SAILKAPENA

1	Touring	45 puntu
2	Euskalduna	45 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

18:00 Euskalduna- Mariño / Lar, 29

JUBENIL MAILA, KOPA

Zumaiko-Euskalduna	1-6
--------------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDA

20:00 Euskalduna- Orioko / Lr, 29

KADETEAK, IGOERA FASEA

Lazkao-Euskalduna	1-2
-------------------	-----

SAILKAPENA

1	Lazkao	18 puntu
2	Euskalduna	17 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

11:30 Euskalduna- S.A.N.S.E / Lr, 29

KADETE, KOPA

Urnieta-Martutene	4-3
Hernani-Urnieta	1-0
Euskalduna-Danena	0-2

ASTEBURUKO PARTIDA

16:00 Urnieta- Euskalduna / Lr, 29

KADETE NESKAK

Euskalduna-Tolosa	1-5
Danena-Urnieta	1-1

SAILKAPENA

1	Tolosa	42 puntu
5	Euskalduna	17 puntu
7	Urnieta	11 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

11:30 Urnieta- Ostadar / Lr, 29

ESKUBALOIA

EUSKADI, SENIOR MUTILAK

Ereintza-Urnieta	23-24
11 Urnieta	10 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

18:30 Urnieta-Basauri / Lar, 29

GIPUZKOA, SENIOR EMAKUMEAK

Urnieta-Pulpo	30-25
---------------	-------

GIPUZKOA, SENIOR MUTILAK

Leizaran-Egia	29-28
---------------	-------

SAILKAPENA

1	Saieko	30 puntu
5	Leizaran	20 puntu

JUBENIL MUTILAK GI. TROFEOA

Urnieta-Elgoibar	25-25
------------------	-------

SAILKAPENA

1	Egia	4 puntu
3	Urnieta	1 puntu

JUBENIL NESKAK GI. TROFEOA

Irun-Leizaran	25-30
---------------	-------

SAILKAPENA

1	Leizaran	4 puntu
2	Pulpo	2 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

11:00 Leizaran- Freintza / Ig, 1

GIPUZKOA, KADETE MUTILAK

Bergara-Leizaran Horia	27-14
------------------------	-------

SAILKAPENA

1	Irun	24 puntu
9	Leizaran Horia	2 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

16:00 Leizaran Horia- Hernani / Lr, 29

GIPUZKOA, KADETE NESKAK

Leizaran Horia-Bergara	11-5
Urnieta I.M-Egia	21-21

SAILKAPENA

3	Leizaran Horia	8 puntu
7	Urnieta I.M	4 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

---:-- Urnieta I.M- Eibar / Ig, 1

17:30 Leizaran Horia- Urola / Lr, 29

KADETE MUTILAK GI. TROFEOA

Leizaran-Amenabar	27-27
Pulpo-Urnieta	24-21

SAILKAPENA

2	Leizaran	3 puntu
4	Urnieta	0 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

16:45 Urnieta- Leizaran / Lr, 29

ARETO FUTBOLA

LIGA, 1. JARDUNALDIA

Euskalduna-Antiguoko	2-5
----------------------	-----

SAILKAPENA

1	Oiartzun	44 puntu
6	Euskalduna	29 puntu

SASKIBALOIA

SENIOR GIZONEZKOAK 3. MAILA

SAILKAPENA

1	Take Coach	21 puntu
7	Zurrut S.K.	15 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

19:30 Zurrut- Astigarra / Lr, 29

JUNIOR GIZONEZKOAK

ASTEBURUKO PARTIDA

09:00 Ganbara- Wolverine / Lr, 29

ZORION AGURRAK



ADUNA / ANDOAIN
Ekiñe
Zorionak
Ekiñe!
Otsailaren 13an
bete zenituen 12
urte. Muxuak denon
partetik.



ANDOAIN
Ongietorria
Ongietorria Aitor!
Zorionak Mikel
aitabxori eta Ainara
amatxori, Aiurriko
lantaldearen
izenean.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri astekarian.
Oso erraza da, eta dohainik! Hiru bide dituzu:

www.aiurri.eus

Sar zaitez "Zorion agurrak" atalean,
eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia
igotzen diren unetik, urtebetetze
egunera bitarte, ikusgai izango da
webgunean.

diseinua@aiurri.eus

Idatzi: izen-abizenak, herria, eguna.
Arantzibia 4-5, behea
Etor zaitez bulegora, Andoainera.
Whatsapp bidez:
619 163 537.

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 27

ANDOAIN Erakusketa

"Ezlekuak", Maritxalarren artelanak
otsailaren 29ra arte ikusgai.
Ohiko ordutegia Bastero.

URNIETA Paisaia plana

Ekarpenak egiteko aukera dago
Bertanen, edo webgunearen bidez.
Azken eguna: Martxoak 1.

ANDOAIN Mintzalagunak

Euskaldunak behar dira, euskara
ikasteko bidean trebatzaile izan
daitezen. Informazioa udaletxean
edota AEK euskaltegian.
Informazioa: Udaletxea, AEK.

URNIETA Emakumeen afaria

Emakume Langilearen Nazioarteko
eguna dela eta, martxoaren 7rako
afaria antolatu da Oianume jatetxean.
Azken eguna: Martxoak 6.

OSTIRALA 28

URNIETA Diaporama lehiaketa

Olaia Iraola eta Andrea Isasaren
eskutik: Argentina, Bolivia, Peru...
18:30 Lekaio. Doan.

LARUNBATA 29

URNIETA Erakustaldia

Adarrazpi baserrira, ardiak ikusi eta
gaztaren ekoizpena ezagutzera. Aldez
aurretik izena eman beharra dago:
943 49 50 69 / 688 89 50 68.
11:00 Adarrazpi, Goiburu auzoa.



Muñoz eta Agirre, iazko bertso saioko argazkian. AIURRI

ANDOAIN Hurria-Sahara elkarrekin antolatutako bertso saioa

Agin Laburu, Oihana Iguaran, Nerea Ibarzabal, Unai Muñoz, Aitor Mendiluze
eta Nerea Elustondo izango dira aurtengo saioko bertsolariak. Seikotea Unai
Ormaetxearen esanetara airtuko da. Sarrerak 6 eurotan salgai daude Delgado,
Ernaitza, Stop eta Urrats saltokitik.
Martxoak 1, igandea. 12:00, Bastero. 6 euro.

ANDOAIN Kontzertua

Feten Feten emanaldia: Jou Gonzalez
haizea instrumentuarekin, Jorge
Arribas akordeoiarekin edo Diego
Galaz biolinarekin.
21:30 Bastero. 12 euro.

DONOSTIA Manifestazioa

"Osasunagatik, ekonomiarengatik eta
klimagatik, ez erre etorkizuna"
lemapean, eskualdeko hainbat
eragilek bat egin du deialdiarekin.
17:00 Easo plaza.

IGANDEA 1

ANDOAIN Ikuskizuna
"Lu" dantza emanaldia.
17:00 Bastero. 4 euro.

OSTIRALA 6

ANDOAIN Erakusketa
Andoango emakumeei buruzkoa.
19:00 Bastero.

TELEFONO ZENBAKIAK

URNIETA

Bertan: 943 008 000.
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Ertzaintza: 943 538 840.
Osasun zentroa: 943 006 680.

ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.
Udaltzaingoa: 943 300 819.
Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.
Osasun zentroa: 943 006 670.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 29 eta igandea 1
DIAZ: Kale Nagusia, 19.
943 592 057 Andoain.

URNIETA

Larunbata 29 eta igandea 1
ETXEBESTE: Elkano, 9 Behea.
943 552 087 Hernani.

GAUEZ

URRUTIA-MARTIN: Etxeberría, 1.
Florida. 943 557 738 Hernani.

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

Adu

Larunbata, 29.
19:30, 22:00.
Igandea, 1. 19:30.
Astellehena, 2.
19:30, 22:00.

Fidelio (Opera)

Marxoak 17. 20:15.

URNIETA

SAROB

Fixies

Igandea, 1. 17:00.



SINOPSISIA



Fixies

Herrialdea: Errusia. **Generoa:** Marrazki bizidunak. **Iraupena:** 80 min.
Hizkuntza: Gaztelania. **Sinposia:** Fixie-ak etxetresna elektrikoak,
aparatuek eta zirkuitu elektrikoak konpontzen dituzten eta hurrek
bakarrik ikus ditzaketen izaki txikiak dira. Horietako bat besoko berezi
batez jabetzen denean, kaosa sortuko duen gaizkile boteretsu
bihurtzen da. Lagun koloretsu hauekin batera, haur txiki baten eta
laborategiko irakasle baten esku egongo da arazoa konpontzea.





Andoaingo Gudua, 2017ko edizioan. AIURRI

1837ko irailaren 14an

Andoaingo gudua 1837ko irailaren 14an gertatu zen, lehenengo karlistaldian, Andoaingo kale eta inguruetan, goizaldean hasita. Liberalen eta karlisten arteko borroka izan zen eta borroka odoltsuetan 600dik gora gizon hil ziren, ia guztiak liberalak eta horietatik gehienak eskoziar, ingeles eta irlandarrak. Karlistek ia hildakorik ez zuten izan egun horretan.

Bazkunak gertaera hori gogora ekarriko du, herri antzezpeneren bitartez.

Andoaingo Guduaren edizio berria

Aurtengo irailaren 19an Andoaingo Guduaren edizio berria antolatuko asmoa du Manuel Larramendi Kultur Bazkunak. Dagoeneko hasi dira lanak eta parte hartzeko lehen bilera deitu dute

Aiurri komunitatea

Manuel Larramendi Kultur Bazkuna

ANDOAIN

Antolatzaileek martxoaren 5ean, ostegunarekin, Urigain kultur etxera azaltzeko dei egiten diete andoaindarrei, bertako gela nagusian bilera egingo baitute arratsaldeko zazpiketatik aurrera. Herritar, aktore edo fusilari bezala irtengo diren andoainda-

rrak behar dira, emakume zein gizaseme, eta martxoaren 5eko bilera horretan nahi beste informazio emango zaie ikuskizunari buruz azaltzen direnei. Andoaingo gudua antzeztuko duten laugarren aldia izango da, 2013, 2015 eta 2017an egin ondoren.

Garrantzi handikotzat jotzen dute antolatzaileek herritarrak

suspertzea ikuskizunean parte har dezaten. Larramendi Bazkuneko lehendakari den Ariane Obinetak adierazi du "Andoaingo gudua herriaren historian izandako gertakari historiko garrantzitsuenen artean dago, lehenengo gerra karlistan izandako gertakari oso anker eta odoltsua. Andoaindarrek han bitzitutako guztiak gogoan edu-

ki eta belaunaldi berriei horien berri ematea herritarron geuron eginkizuna da, beti ere azpimarratuz zein alferrikakoa eta zein hondamendi handikoa gertatu zitzaigun gerra hura, baina nabarmenduz ere herritarrek elkarrekin bat eginez gero aurrera egin dezakegula beti, irmo, orain ia berrehun urte egin genuen bezala, erretako baserri guztiak eta herria berreraikiz. Andoaingo herritarron eginkizuna da gure historia oroitzea eta oroitaraztea eta historia horien irakatsiak zabaltea".

**ANTOLAKETA
LANEI EKITEKO
MARTXOAREN 5EAN
BILERA IREKIA DEITU
DUTE URIGAINEN**

Kartela osatzeko deialdia

MLKBtik dei berezia egiten diete herriko gazteei: une honetan 20 gazte behar dituzte, neska ala mutil, 16 urtetik gora eta 35 urtetik beherakoak, Andoaingo gudua iragarriko duen kartela egiteko. Horretarako, argazkisaio berezia antolatuko dute – kartela egiteko, alegia- eta ordurako hogeitazaz horiek elkartu nahi lituzkete, behar bezala jantzi, etab. Parte hartu nahi duten gazteek egin dezate la dei 656-782-521 zenbakira, whatsapp idatzi edo bazkuna@larramendi.org helbidean.

**ANTZEZPENAREN
LAUGARREN ALDIA
IZANGO DA 2013,
2015 ETA 2017AN
EGIN ONDOREN**



**Telegram erabiltzailea al zara?
"Aiurri Andoain" kanala bila
ezazu, eta jarrai gaitzazu**

Andoaingo albisteen jarraipena errazteko aukera.

ALBISTE BERRI ON, IRAKURLE!



www.aiurri.eus | twitter | facebook | instagram | telegram